

# BOULDER LIGA 2018

## Lehenengo frogaren kronika, Fundacion Estadio S.D

Urteak aurrera doaz, baina liga ospetsu honen lehenengo frogaren kokapena ez da aldatzen eta horrela izan da aurten ere. Fundacion Estadio S.D.-ko rokodromoan burutu da. Beste urte batez argi gelditu da eskalada gero eta jende gehiago erakartzen duela, horren seinale izan da lehenengo froga honetan 65 partehartzaileko mugara izen emateen epea amaitu aurretik iritsi zela. Adierazgarria da gero eta gazteagoak direla eskalatzaileak, hau da, batez besteko adina urtero baxuagoa dela kategoria guztietan, eskaladaren gaztetasunaren seinale.

Hasiera eman zaio, guztira lau froga izango dituen txapelketa honi giro ezin hobean!!

Aurten aurreko urteko formatu berdinak erabiliko dira, bai goizeko sailkapen saioan, bai arratsaldeko finaletan ere. Aurreko urteko aldaketekin jarraitzea erabaki da argi eta garbi gelditu baitzen goizeko formatu berriak askoz gehiago eskalatzeko aukera ematen duela eta partehartzaileek askoz gehiago gozatzen dutela. Guztira ekipatzaile talde bikainak proposaturiko zailtasun desberdineko hamabost bloke frogatzeko aukera izan zuten. Formatu berri honi esker eskalatzaileak elkartasun eta laguntasun giro askoz hobea sortzen dute haien artean, goizean zehar guztiak batera eskalaten dutelako, entrenamendu bat gehiago izango balitz bezala.

Lehiaketara pasatuz, arratsaldean gazteenak izan ziren beti bezala lehian lehenengo agertu zirenak, kasu honetan Sub-16 kategoriako mutilak. Txapeletako txikienak izan arren argi utzi zuten haien maila oso altua dela eta eskaladaren etorkizuna guztiz bermatuta dagoela. Martzel Vicario izan zen garaile, bere atzetik Unax Urteaga eta Juan Diego Ospina izan ziren bigarren eta hirugarren hurrenez urren.

Jarraian, arratsaldeko txapelketak ez baitzuen ia etenik izan, Sub-16 kategoriako neskak sartu ziren lehian. gero eta nabarmenagoa da emakumezkoak eskalada munduan beraien lekua jadanik egin dutela, eta horrekin konformatu gabe aurrera doaz pauso sendoz, horren adierazgarri neskabilen maila eta kemena. Finala oso estua izan zen lehiatzaileen artean, lune Lahidalga izan zen garaile, Haizea Osés gertu gertutik jarraituta eta Lucia Arlanzonek bete zuen podiuma.

Beste urte batez liga boulderrera jende gehien gerturaten duen kategoriaren txanda etorri zen txikien ostean, Herrikoia Mutilak hain zuzen ere. Aurreko urtean baino partehartzaile gehiago izan ziren oraindik, guztira 25, eta lehia estua eta gogorra izan zen. Finalera pasatu ziren seiren artean, azkenean Asier Jakak irabazi zuen, bloke bat gehiago egin baitzuen, Asier Cobo bigarren eta Oier Zelaia hirugarren.

Herrikoia neskek burututako lehia ere nabarmena izan zen larunbatean, kategoria honetan neskak oso indartsu eta motibatuak daudela ikusi zen. Kasu honetan lehenengo hirurak Itziar Pomar, Irune Calvo eta Oihana Zubikoa izan ziren, hirurak oso eskalatzaile gazteak izanda.

Herrikoi kategorien ostean Eliteen txanda etorri zen, lehenik eta behin, mutilak irten ziren ekipatzaileek finalerako prestatutako bloke konplexuak saiatzera. Garaipena bi gipuzkoarren artean egon zen gehien bat, azkenik Iñaki Salaverria gazte indartsuak eraman zuen, Aratz Etxeberria gertutik jarraituta. Podiuma Jon Frakak osatu zuen.

Liga Boulderreko lehenengo froga honi amaiera emateko Elite emakumeak izan genituen ikusgai. Kasu honetan podiuma kategoria honetako hiru neska gazteenak osatu zuten, argi utziz berriro ere emakumeak haien tokia egin dutela kirol honetan eta zer esan asko izango dute hurrengo urteetan. Lehenengo sailkatu zena Izaro Azkue Izan zen, Aitziber Urrutia izan zen bigarren eta podiuma Irati Zabalak osatu zuen.

Antolakuntzatik eskalatzaile eta ikusle guztiei eskertu nahi dizuegu parte hartu izana baita txapelketara gerturatu izana ere, zuei esker froga guztian zehar giroa aparta izan zen eta eskaladaren festaz gozatu genuen. Oroitzea partehartzaile guztiei hurrengo Otsailak 17an Amurrioko polikiroldegian izango dugula hurrengo froga eta izen emateak aurreko ostiralean eguerdiko 12:00etan amaitzen direla.

**Animatu eskaladaz gozatzera!**

### **Crónica Primera prueba Fundación Estadio S.D.**

Como si de una tradición se tratara, la primera prueba de esta popular liga de escalada ha vuelto a dar cita a los escaladores de Euskal Herria en el rocódromo de la Fundación Estadio S.D. en Vitoria-Gasteiz. Esta importante cita para la escalada popular dió comienzo con un agradable ambiente de competición y de fiesta, con participantes de los cuatro territorios, además de algún aficionado de Burgos y la Rioja, con un total de 65 participantes, el tope marcado por la organización.

Este año se va a seguir con el formato del año pasado, ya que, quedó muy claro que este es el preferido por los participantes. Gracias a este formato más dinámico en la clasificatorias los escaladores pueden disfrutar de los bloques propuestos por nuestros equipadores durante más tiempo, pudiendo probar hasta un total de quince divertidos y exigentes bloques. Durante toda la mañana, los participantes de las diferentes categorías pudieron escalar juntos, como si de un entrenamiento con amigos se tratara.

Centrándonos en lo deportivo, un año más los más jóvenes, categoría Sub-16 Masculino, fueron los primeros en luchar por la victoria en las finales de la tarde. Los más "txikis" demostraron un altísimo nivel y dejaron claro que hay futuro para la escalada. La victoria fue para un contundente Martzel Vicario, seguido por Unax Urteaga y tercero fue Juan Diego Ospina.

Las siguientes en competir fueron las jóvenes promesas de la categoría Sub-16 Femenino, que también demostraron un altísimo nivel y es que vienen pisando fuerte. Tras una apretada final el triunfo se lo llevo Iune Lahidalga, gracias a que tuvo una mejor actuación por la mañana que la segunda clasificada, Haizea Oses. Tercera fue Lucia Arlanzon.

Pasamos a la que habitualmente un año más fue la categoría más concurrida de la Liga Boulder, Popular Masculino, con un total de 25 participantes, los seis finalistas lucharon duro por la victoria. La final estuvo bastante ajustada pero la victoria finalmente fue para Asier Jaka, seguido muy de cerca por Asier Cobo y con Oier Zelaia completando el podio.

Las siguientes en probar sus fuerzas en los bloques de la final fueron las chicas de la categoría Popular Femenina. En este caso la final también fue muy ajustada, se acabó llevando la victoria Itziar Pomar, seguida de la jovencísima Iruñe Calvo y con la Navarra Ohiana Zubikoa en tercera posición.

Después de las categorías populares, los chicos de la categoría Elite Masculina entraron en escena, tuvieron que apretar muy fuerte para intentar resolver los duros bloques propuestos por los equipadores. El triunfo acabó siendo para un muy fuerte, Iñaki Salaverria, seguido por el también guipuzkoano Aratz Etxeberria y Jon Fraka completó el pódium de los mejores.

Para terminar con esta primera prueba de la Liga Boulder 2017 tuvimos en competición a las chicas de la categoría Elite Femenina. El pódium de esta categoría se lo repartieron entre tres jovencísimas escaladoras, que lo dieron todo y escalaron de manera impecable, una vez más dejaron claro que la mujeres tienen mucho que decir en este deporte. Primera fue la ondarrutarra Izaro Azkue, seguida por Aitziber Urrutia, el Pódium lo completó Irati Zabala.

Desde la organización queremos terminar agradeciendo a todos los participantes, por animaros un año más a participar en la Liga Boulder y a todos los familiares y aficionados de la escalada que se acercaron a ver la prueba como público, favoreciendo el buen ambiente. Terminar recordando a todos los fanáticos de la escalada que el próximo 17 de Febrero se disputará la segunda prueba de la Liga Boulder en el Polideportivo de Amurrio, las inscripciones se terminarán el viernes anterior a la prueba a las 12:00 del mediodía.

¡Anímate a la fiesta de la escalada!

# SAILKAPENAK

## Sub 16 Mutilak

1. Martzel Vicario
2. Unax Urteaga
3. Juan Diego Ospina

## Sub 16 Neskak

1. Iune Lahidalga
2. Haizea Oses
3. Lucia Arlanzon

## Herrikoia Mutilak

1. Asier Jaka
2. Asier Cobo
3. Oier Zelaia

## Herrikoia Neskak

1. Itziar Pomar
2. Irune Calvo
3. Oihana Zubikoa

## Elite Mutilak

1. Iñaki Salaverria
2. Aratz Etxeberria
3. Jon Fraka

## Elite Neskak

1. Izaro Azkue
2. Aitziber Urrutia
3. Irati Zabala